

Jessica Young

Finley Flowers



Naturaren
deia!

desclée

A decorative border of stylized flowers and leaves in various shades of gray surrounds the central text. The flowers are of different sizes and shapes, some with multiple petals, and the leaves are simple, pointed shapes. The border is more dense on the left and right sides and lighter on the top and bottom.

Finley Flowers

Naturaren deia!

AURKIBIDEA

1. atala	
KANPAMENTURAKO PRESTI.....	7
2. atala	
ONGI ETORRIAK EZKUR KANPAMENTURAI.....	15
3. atala	
NON NIRE TXOKOA, HAN NIRE GOZOA.....	26
4. atala	
NINJA TRIKOTALARIA	32
5. atala	
ARIN-ARIN	38
6. atala	
BIRENTZAKO DENDA.....	50

7. atala

EZ EMAN JANARIRIK URTXINTXEEEM!!!.....60

8. atala

BEHARRA DAGOENEAN..... 72

9. atala

DRAKURTXTXA81

10. atala

BALDINTZA GOGORRENETAN ERE, TINKO EUTSI!...96

11. atala

HIRU HANKAKO NAHASPILA 102

12. atala

OROITZAPENEN ONTZIA.....114

1. atala

KANPAMENTURAKO PREST!

Finley Flowersek mendiko bota berriak armairutik atera, eta tirakada batez jantzi zituen. Herdoilaren kolorekoak ziren, zola sendo eta lodikoak, eta orkatiletan lotzen ziren, patinak bezala. Lurra astintzeko, bidea urratzeko eta indarrez zapaltzeko botak ziren haiek. Irrikaz zegoen kanpora irten eta estreinatzeko. Nahiz eta udako oporrak astebete eskas lehenago hasi, urtebete igaroa zela iruditzen zitzaion. Baina, azkenean, iritsi zen kanpamentura joateko eguna, eta prest zegoen.

Sokak estu-estu lotu, eta saltoka jaitsi zituen sukaldarako eskailerak. Han, Zack aurkitu zuen, bere neba zaharrena, zereal katilukada bat amaitzen.

—Dena prest Ezkur kanpamenturako! –esan zion Finleyk pozarren—. Hainbeste jarduera itzel dauzkate! Arrantza, arku-tiroa, sukaldaritza, errekek esploratzea... Pentsa, aintziran txalupa bat ere badute, eta eskulan apartak egiten dituzte bertan!

—Badakit –esan zuen Zackek lehor, eta harraskan utzi zuen katilua—. Zortzi urte ditudanetik joaten naiz hara, gogoratzen? –Zereal barratxoan kutxa bat sartu zuen bere bizkar-zorroan—. Baina kanpamentuan dena ez da ondo pasatzea eta jolastea. Nortasun gogorrekoa izan behar duzu naturan inolako erosotasunik gabe moldatzeko.

—Gogorra baino gogorragoa naiz ni! –esan zuen Finleyk harro—. Hara, zu baino askoz gehiago.

—Kar-kar-kar! –Zackek barre maltzurra egin zuen—. Sor eta gor uzten nauzu.

Finleyk bekozkoa jarrita begiratu zion.

—Zer esan nahi duzu?

—Ikusten dudanean sinetsiko dudala –Zackek bizkar-zorroa sorbaldan zintzilikatu, eta lo-zakua hartu zuen—. Gauza jakina da mutilak neskak baino gogorragoak garela.

—Gezur zikina! –haserretu zen Finley.

Zacki irribarre bihurri bat irten zitzaion.

—Frogatu, orduan.

Neba irteten ikustean, masailak sutan sentitu zituen. Bera baino bi urte zaharragoa besterik ez bazen ere, mukizu bat bezala tratatzen zuen beti. Baina oraingoan urrunegi joan zen. Erakutsiko zion, bai, zenbateraino diren neskak gogorrak.

* * *

Gosaldu ostean, Finleyk bizkar-zorro astuna hartu, eta arrastaka eraman zuen autoraino. Amak laguntza eskaini zion, baina Finleyk ezezkoa egin zion buruaz.

—Gai naiz neu bakarrik nire gauzak eramateko
—esan zion.

Zackek atzeko eserlekuan bota zuen bizkar-zorroa, eta bera sartu zen hurrena. Entzungailuak jarri, eta *Liga Nagusiko Jokalariak* beisboleko liburua atera zuen. Finleyren ahizpa txikia, Evie, nebaren atzetik igo zen autora, eskuan poltsa bete zizka-mizka eta aldizkari zuela. Berehala, Henryren bila abiatu ziren. Finley poz-pezik zegoen bere lagun mina ere kanpamentura zetorrelako, gogorra baino gogorragoa egingo zitzaiolako astebate pasatzea laguna ikusi gabe.

Henryren etxeko sarrerara iristerako, hantxe zuten mutikoa zain, kiribildutako lo-zakuaren gainean eserita, bere koadernotxoan idazten.



Bizkar-zorroan sartu beharrekoen zerrenda
errepasatzen arituko da, ziur asko, pentsatu zuen Finleyk.
Henryk zerrendak prestatzen zituen zernahitarako.

Gurasoei agur esan bezain azkar, Henryk autoaren maletategian bota zituen bere gauza guztiak eta barrura sartu zen.

—Bitan errepasatu dut zerrenda, eta den-dena daukat –esan zuen harro.